

**Balorezko proposamena:**

Gure enpresan bezeroei bigarren eskuko altzariak salduko diegu, hala nola: mahaiak, aulkiak, oheak... Altzari horiek ordaintzeko, bezeroei epe bat emango diegu. Hau da, armairu bat ordaintzeko sei hilabeteko epea emango diegu eta aulki batengatik berriz, hiru hilabete emango diegu. Bere antzinasunaren arabera, prezio aldakorrak jarriko genituzke.

Gure konpetitzaileekin desberdintzen gara, prezio baxuak (low cost) ditugulako. Hori egin dezakegu, jendeak etxean gorde nahi ez dituen altzariak hartzen ditugulako eta gure enpresari dohainik ematen dizkigulako. Gainera, oso konpetenteak gara bezeroen arretarekin.